

Ostirala, 2012/11/02

Kronika.net

Argazkiak

Elkarriketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

## AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2012  
azaroa  
1



## BILATU

Kronika Zaharrak

## ARGITARATZAILEA



## LAGUNTZAILEAK

KRONIKA.NET

### ASTIGARRAGA - SAGARDOETXEA

## Sagar dastaketa eta sagar muztioa egiteko aukera, zubian

**Eskaintza gaurtik igandera bitarte izango da. Gaur eta igandean, goizez egongo da zabalik; bihar eta larunbatean, goiz eta arratsalde.**

2012/11/01 - Osteguna

Azaroko zubi hau aprobetxatzeko, Astigarragako Sagardoetxeak hainbat ekimen antolatu ditu. Alde batetik, sagar barietate ezberdinen dastaketa antolatu du. Eta bestetik, sagar muztioaren elaborazioan parte hartzeko aukera eskainiko die bisitari guztiei. Sagar muztioa prozesu tradizionalari jarraituz egingo da: lehendabizi kizkiarekin sagarrak lurretik jasotzen dira. Sagarrak bildutakoan, sagarrak pisoiekin zanpatzen dira. Gero, prentsarik pasa eta zukua atera ostean, lortutako muztioa probatzeko aukera dago.


### Adina eta kopuruaren arabera, prezio ezberdinak

Gaurtik igandera bitarte izango da eskaintza. Ordutegia, honakoa: gaur eta igandean, 11:00etatik 13:00etara; bihar eta larunbatean, 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. Prezioak desberdinak izango dira adinaren eta jende kopuruaren arabera. Helduak: banaka, 4 euro; taldean, 3,50 euro. Haurrak: 11-18 urtekoek 2 euro; 10 urtetik beherakoek doahainik.



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005